

HAURDUNEI GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA EMATEARI BURUZKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK

ZER DA GRIPEA?

Gripea gaixotasun infekziosoa da, influenza birusak eragindakoa. Arnas sistemari eragiten dio batez ere, hots, sudurrari, eztarriari eta birikei, eta erraz hedatzen da pertsona batetik bestera, normalean airearen bidez, norbaitek ezdul edo doministiku egiten duenean.

NOLA ZABALTZEN EDO TRANSMITITZEN DA GRIPAREN BIRUSA?

Gripearene birusa batez ere airearen bidez hedatzen da, infektatutako pertsona batek ezdul, doministiku edo hitz egiten duenean, birusa duten tanta txikiak askatzen baitira. Kutsatutako gainazalak ukitzean eta, ondoren, eskuak ahora, sudurrera edo begietara eramatean ere kutsa gaitzke.

NOLA PREBENITU DAITEKE GRIPEA?

Txertoa da prebenitzeko modurik eraginkorrena. Txertoaz gain, neurri higieniko erraz eta eraginkor hauek gomendatzen ditugu gripea eta beste arnas-infekzio batzuk prebenitzeko:

- Eskuak maiz garbitzea, batez ere ezdul edo doministiku egin ondoren
- Gelak aireztatzea
- Ezdul edo doministiku egitean ahoa estaltzea, erabili eta botatzeko zapiekin, ahal dela.
- Posiblea bada, ez berrerabiltzea doministiku egitean edo sudur-jariakinak garbitzean erabilitako zapiak.
- Ahal den neurrian, beste pertsona batzuekiko kontaktua mugatzea ondoeza, sukarra edo beste gripe-sintoma batzuk izanez gero, pertsona horiek ez kutsatzeko.
- Gaixoekin kontakturik ez izatea, kutsatu ez gaitzaten.

HAURDUN BANAGO, TXERTOIA HARTU BEHAR DUT?

Haurdunaldiko edozein hiruhilekotan txertoa hartzea gomendatzen da, eragin hirukoitza duelako:

- Ama babesten du.
- Jaioberria babesten du.
- Haurra babesten du bere bizitzako lehen hilabeteetan.

Gripeak haurdunaldian eragin dezakeen erikortasuna, baita heriotza-tasa ere, beste arrisku-talde batzuentzat deskribatutakoaren antzekoa da. Haurdunaldiaren lehen hiruhilekoan gripearen birusarekin infektatzeak lotura du honako hauen maiztasuna areagotzearekin: bihotzeko malformazioak, erbi-ezpaina eta hodi neuralaren akatsak. Infekzioa bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan gertatzen bada, abortu eta erditze goiztiar gehiago izatearekin lotuta dago.

HAURDUNALDIAN, NOIZ GOMENDATZEN DA TXERTOIA?

Gripearen aurkako txertaketa-kanpainan –normalean udazkenean egiten dena–, haurdunaldiaren edozein hiruhilekotan dauden haurdunei txerto-dosi inaktibatua hartzea gomendatzen zaie.

SEGURUA AL DA GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA HURDUNALDIAN?

Bai, txerto horrek ezin du gripea eragin, eta segurua da haurdunaldian.

Hala ere, txertoek, beste edozein farmakok bezala, kontrako ondorioak izan ditzakete, baina ez dira oso ohikoak eta arinak izaten dira (molestiak zitzada-tokian), eta ez diote inola ere eragiten haurraren osasunari.

ZEIN KASUTAN DAGO KONTRAINDIKATUTA GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA?

- Txertoaren printzipio aktiboek edo osagaien bati alergia dieten haurdunak.
- Lehenago gripearen aurkako txerto batekiko erreakzio alergiko larria izan duten haurdunak.
- Sukarra edo infekzio akutu bat duten haurdunak: txertoa atzeratu egin beharko da sendatu arte.

HAURDUNALDI BAKOITZEAN, GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA EMAN BEHAR DA?

Bai. Haurdunaldi bakoitzean beharrezkoa da gripearen aurkako txertoia jartzea, bi arrazoiengatik:

Gripearen birusek gaitasun handia dute beren azaleko antigenoak aldatzeko (birusak infektatzeko duen gaitasunean garrantzi berezia duten proteinak). Aldaera horien ondorioz, gripearen birus berriak agertzen dira, eta gizakiak ez du birus horietarako babesik. Horregatik, txertoia urtero eguneratu behar da. Gainera, denborarekin, txertoari esker sortzen diren antigorputzak gutxituz doaz.

POSIBLE AL DA KUKUTXEZTULAREN ETA GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA HARTZEA EGUN BEREAN?

Bai, bi txertoak jartzeko unea bat badator, bisita berean jar daitezke, baina bakoitza beso batean. Egundezberdinetan ere jar daitezke, denbora-tarte jakin bat gorde beharrik gabe. Gomendatzen da kukutxeztularen aurkako txertoia haurdunaldiaren 27. astetik aurrera jartzea, baina, ahal dela, 27. edo 28. astean.

BULARRA EMATEN ARI DIREN EMAKUMEEK GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA HAR AL DEZAKETE?

Bai, gripearen aurkako txertoia emakume edoskitzaileek har dezakete. Txertaketak ez dio eragiten esnearen ekoizpenari, eta defentsak transferitu diezazkioke haurrari, antigorputz eta esnetik igarotzen diren beste substantzia batzuen bidez.

Izan ere, txertaketa-kanpaina indarrean dagoen bitartean, erditu ondorengo lehen 6 hilabeteetan gripearen aurkako txertoia hartzea gomendatzen da.